

Sorrera / Sarrera

BIDAIA GURE BAITARA

Liburu hau irakurtzean egileen ibilbidea txango baten modura dastatuko duzu eta berau egiteko arrazoia ezagutuko duzu.

Euskal nortasuna hizpide, Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroetako aldian aldiko topagunearen kronika da, funtsean, liburu hau.

Liburua atalez atal osatzeko sistema honek, gai bakoitzari buruzko artikuluak bilduz, egile bakoitzaren ahotsa eta, agian, bere euskal nortasunaren ezaugarriren bat edo beste azalduko dizu; baina kontuan har ezazu ibilbidea bera mintzagai dugula, bidea zapaltzea eta aztertzea helburu izan dugula, alegia; bai eta alor ezezagunean murgiltzeko erronka eta abentura intelektuala.

Erronka gainditu ote dugu? Joan eta etorriko bidaia izan da gurea: burmuinak pixka bat berotu ondoren, eusko kultur gaiak abiapuntutzat hartu ditugu. Inguruak aztertu, beste nortasunen artean euskal identitatea topatu eta bertan herri baten zantzua nabaritu dugu. Merezitako arnasa eta patxada geure buruei inposatu ondoren, **nazio-herri** baten ezaugarriak (lurraldetasuna, hizkuntza/kultura eta boterea) ahal genuen bezala motxilan bildu eta gure ildoari heldu diogu berriro.

Bakoitzak bere kabuz pertsona gisa eta talde identitario gisa egindako bidea berrikusi dugu eta, horretan ari ginela, ibili-ibilian bakoitzak idatzitako artikuluak berreskuratu ditugu. Liburua osatzerakoan aintzat hartu dugu, geure buruez pentsatzen genuena baino gehiago, zientifikoki (antropologia, gizarte, ezagutza, herri-egituraren ikuspegitik), *benetan* zer garen. Alegia, inongo edo inoren irizpidetan oinarritu baino gehiago, metodologia zientifikoaz gure ekimenak aztergai izan ditugu.

Guk jasotako esperientzia jakin nahi duenari lagungarri izango zaiolakoan saiatu gara galderak eta erantzunak biltzen: euskaldunak nor garen, nolakoak, zertan dihardugun, zergatik, zergatik oraindik... Nola uler daiteke, irizpideak irizpide, lasaitasun osoz *bagarela* esan eta lurralde osoa (*zazpiak bat*) egituratuta ez izatea oraindik?

Galdera horietan barrena guk egindako ibilbidearen esperientzia gidaliburu batean islatzea lagungarri izango delakoan gaude euskal senaren esanahiaz interesatuta izan daitezkeenentzat.

Txangoa deitu diot hurbil dagoen norabait joan garelako —itxuraz behintzat—. Euskal Herrian bertan bueltaka ibili gara. Baina bidaia ez da asteburu batekoa izan. Hamar urte luzeko ibilaldia izan da. Egia esateko, ez genien gure burmuinei horrelako jarduera luzerako egitaraua inposatu. Bitartean beste zereginetan ibiltzeko astia ere izan dugu. Gertatu dena izan da hasieran ez genekiela urrats bakoitzaren ondotik beste muino bat agertuko zitzaigula. Ustekabean gertatu zaigu urte hauetan; hots, gutako bakoitzak bide bertsua egin duela besteekin kontsulta askorik egin gabe. Gaia jorratzeko nahian, elkar ezagutu ez eta une desberdinetan topo egin genuen UEUko ikastaroa zela eta. Gaiak berak eta gaiari buruzko gure jakin-minak erakarri gaitu, elkartu gaitu eta aurrera jarraitzeko agindu digu.

Hirurok ere zientifikoki jokatu nahi izan dugunez, hemengo errealitatean argibiderik aurkitu ezean, beste herri, besteen identitate edota beste botere batzuk nola garatu diren aztertzeraz jo dugu maiz, lekukoen aholku bila. Gurean aurrera egitearren, atzerako ispilutik atzerritarren esperientziari so.

Argitaratzeko orduan konturatzen gara hamar urteko epean gauzak aldatu egin direla. Batzuen ustez gehiegi; gure ustez gutxiegi.

Aldaketak gertatu direnez, barka biezagu irakurleak gure hasierako artikuluen garaietako esamoldeei, pentsaerei edo ideiei iragan gaindituaren usaina baldin badarrie.

Halere, batzuetan eta ezinbestez gaurko irakurleari eskaintzeko, testu bera egokitu baino, nahiago izan dugu kontestua gaurkotu edo osatu ohartxoan bitartez.

Argi gera bedi gure ibilbidea mentala izan dela. Errealitatea bera egituratzeko jokaera zehaztea lagungarri izan dakigukeen arren, argi dago ekimenari heltzeke gaudela oraindik.

Eugenio Arraiza. Iruñean, 2007ko udaberrian.